

ERAKUSKETA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Lana planifikatzea	Lana zuzen planifikatu da, eta erantzukizunak, materiala eta denbora orekatuta banatu dira.	Lana nahiko ondo planifikatu da, erantzukizunak, materiala eta denbora banatuta.	Lana planifikatzean, gutxi gorabehera banatu dira erantzukizuna, materiala eta denbora.	Ez da lana planifikatu, eta ez dira banatu erantzukizunak, materiala ez denbora.
Azalpenaren antolakuntza	Erakusketa ondo antolatuta dago, eta eremu nahiz gai guztiak argi identifikatu eta sartu dira espazioan	Erakusketa ondo antolatuta dago, eta eremu nahiz gai gehienak identifikatu eta sartu dira espazioan	Erakusketa antolatuta dago, baina ez dira argi identifikatu eta sartu eremu eta gai guztiak	Erakusketa, eremuak eta gaiak ez daude ondo antolatuta, eta espazioa gaizki proportzionatuta dago
Erakusketaren kalitatea eta diseinua	Erakusketa arreta eta sormen bikainez prestatuta dago, erabilitako materialak ere kalitate onekoak dira, eta erakargarria da bisitarientzat	Erakusketa, oro har, arreta eta sormenez prestatuta dago, erabilitako materialak ere kalitate onekoak dira, eta erakargarria da bisitarientzat	Erakusketa arreta eta sormen handirik gabe prestatuta dago, erabilitako materialak ere ez dira apartekoak	Erakusketa inongo arreta edo sormenik gabe prestatuta dago, eta erabilitako materialak ere ez dira onak
Talde-lana	Taldeak bakoitzari egokitutako ordutegi eta egunetan egon dira erakustetan, fin asko, eta gai izan dira bisitariei aholkuak eta arreta adeitsua emateko	Taldeak bakoitzari egokitutako ordutegi eta egunetan egon dira erakustetan, eta gai izan dira, oro har, bisitariei arreta adeitsua emateko	Taldeak erdipurdi egon dira bakoitzari egokitutako ordutegi eta egunetan erakustetan, eta bisitariak ez dituzte adeitsu hartu	Taldeak ez dira erakusketan egon adierazitako ordutegi eta egunetan, eta ez diete arretarik eman bisitariei

